

DOKUMENTUAK

ELEFANTEA GELAN EDO INORK JORRATU NAHI EZ DUEN ARAZOA

Ezkerreko alderdiak
eta Europar Batasuna

Asbjørn Wahl

Elefantea gelan edo inork jorratu nahi ez duen arazoa

Ezkerreko alderdiak eta Europar Batasuna

Asbjørn Wahl (2020ko abenduaren 1a)

1. SARRERA	3
2. EUROPAKO EZKER KAOTIKOA	4
3. EB-REN POLITIKAREN KRITIKA ZORROTZA	7
4. EUROPAR BATASUNA BARRUTIK ERREFORMATU AL DAITEKE?	10
5. B PLANA: TRATATUEKIN HAUSTEA	13
6. "ARRAZISTA ETA NAZIONALISTENTZAKO KANOI-BAZKA"	15
7. MAILA BAXUKO KLASEEN ARTEKO BORROKA	18
8. EUROPAKO EZKERRAREN DIAGNOSTIKOA	20
OHARRAK	24

Dokumentuak 48

2021eko Otsaila

www.mrfundazioa.eus

@mrfundazioa

Asbjørn Wahl aholkulari sindikala, idazlea eta ekintzailea da. Duela gutxi arte, Garraioko Langileen Nazioarteko Federazioko (ITF) Hiri Garraioko Batzordeko presidentea eta Klima Aldaketari buruzko ITF lantaldeko burua izan da. Gaur egun, demokrazia energetikoaren sareko sindikatuen Aholkularitza Talde Globaleko kidea da. *The Rise and Fall of the Welfare State* (Pluto, 2011) lanaren egilea da. aswahl@outlook.com helbidean jar daiteke berarekin harremanetan.

1. SARRERA

Azken bi hamarkadetan Europako ezkerreko alderdiak gero eta kritikoa-goak bihurtu dira Europar Batasunaren bilakaera politikoarekin, eta, zehazki, 2007-2008ko finantza eta euroaren krisiaren ondoren etorri ziren austeritate-politikei emandako erantzunarekin. Politika horiekin batera langabezia-kuota handi eta iraunkorra eta inoiz gauzatu ez zen oinarri sozialaren promesa etorri ziren. Bien bitartean, integrazio ekonomiko neoliberalak indar osoz jarraitu zuen bere bidea, merkatuko indarrek garapen sozialaren gainean duten boterea handitzen lagunduz.

Hala ere, Europar Batasunari egindako kritikak areagotu egin diren arren, hori ez da ondo islatu ezkerreko estrategia politikoetan. Egia da garrantzi handiko gai berriak sortu direla, Greziako krisiaren eta politiken garapenaren aurkako erreakzio gisa, batez ere. Herrialde horretan, Syriza ezkerreko alderdiak bere programa politikoa alboratu egin zuen 2015eko urtarrilean agintea eskuratu ondoren. Greziako gobernua, gutxi-asko, EBren administraziopean jarri zen, edo bere kritikoetako askok dioten bezala, Syrizaren gobernuak Europar Batasunaren aurrean kapitulatu zuen. Kapitulazio hori, politikaren ikuspegitik Syrizaren beraren ordezkariak ez ezik, ezkerreko gainerako alderdi gehienetako ordezkariak ere defendatzen dute, *transform! Europaren*⁽¹⁾ barruan.

Horrek guztiak arazo bat sortu zuen, Syrizako kritikoek zein Europako ezkerreko beste talde batzuek planteatutakoa: ea posible den Europar Batasuna barrutik erreformatzea⁽²⁾. Europar Batasunak (edo Europako Batzordeak, Europako Banku Zentralak eta Nazioarteko Diru Funtsak osatutako Troikak) krisiak gogor jotako beste herrialde batzuen aurka –Irlanda, Italia, Portugal eta Espainia– hartutako neurriak are gehiago nabarmendu zuten gai hori. Ezkerreko estrategia politikoetan Diru Batasunetik eta Ekonomia Batasunetik, eta, beraz, eurotik eta, beharba-

da, baita Europar Batasunetik ere, alde egitea tresna garrantzitsua izan beharko litzateke? Europar Batasunaren konkista eta erreforma barrutik egin beharko lirateke *Europa soziala* sortzeko moduan? Galdera horiei ematen zaien erantzuna, jakina, erabakigarria da ezkerrek Europan duen estrategiari begira.

Hala ere, badirudi ezkerreko alderdi nagusietako askotan eztabaida hori planteatzeko gaitasun eta prestutasun falta dagoela. Eta horrela, Europar Batasunarekiko harremanak “elefantea gelan” bihurtu dira alderdi horietako askorentzat. Horrez gain, Syrizarren gobernuaren esperientzien inguruko eztabaida ere badago. Badirudi arazoak izaten dituela beti Europako ezkerreko foroen agendan parte hartzeko. Mesfidantza horren azpian, Europar Batasunaren zeregina eta izaera ulertzeko modu desberdinak daude, eta biek denboran zehar izan duten bilakaera ulertzeko, batez ere.

2. EUROPAKO EZKER KAOTIKOA

Europako indar ezkertiarrek ahulak dira, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki, eta azken hamarkadetan krisi politiko eta ideologiko handia jasan dute. Gauzak horrela, ezin izan dute indar esanguratsua izan krisi ekonomiko garaian, ongizate estatuaren kontrako erasoen aurrean eta desberdintasun eta pobrezia-aren aregotzearen aurka. Funtsean, eskuin muturra izan da jendearen gero eta nahigabe eta atsekabe handiagoari etekinak ateratzea lortu duena. Europar Batasuneko estatuak 2017an eta 2018an deitutako hauteskunde nazionaletan, eskuineko alderdiek aise bikoiztu zuten euren boto kopurua, 10,3 milioitik 22,1 milioira pasatuz. Aldi berean, ezkerreko alderdiak 10 milioi boto ingurutan gelditu ziren⁽³⁾. 2019ko maiatzeko Europar Batasuneko hauteskundeetan, ezkerreko alderdien babesak are gehiago jaitsi zen, eskuin muturraren babesak berriro igo zen bitartean.

Azken hamarkadetan ezkerrean zenbait berrantolaketa gertatu da. Italian ia ez da ezkerreko alderdi tradizionaletatik ezer geratzen. Esan daiteke huts egin duten maniobra politikoek bidez euren burua suntsitu dutela. Frantzian joera kontrajarriak daude. Jean-Luc Melenchon izan da

ezkerreko ordezkari nagusia alderdi Sozialistarekin hautsi eta 2008an Parti de Gauche (Ezkerreko Alderdia) osatu zuenetik. Alderdi horretan oinarrituz, Front de Gauche (Ezkerreko Frontea) eratu zuen 2009ko hauteskunde aliantza gisa, beste batzuen artean alderdi komunista barne hartuz. Hala ere, Melenchonen jendearen eta alderdi komunistaren arteko aliantza hauskorra zen, eta, azkenean, desegin egin zen. Ezkerreko Frontea ere 2018an desegin zen modu ofizialean. Ordurako, baina, Melenchonek bere hurrengo erakunde politikoa osatuta zuen, La France Insoumise (Frantzia intsumisoa). Alderdiak, edo mugimenduak, arrakasta izan zuen Melenchon presidentetzarako hautagai gisa aurkeztu zenean 2017ko hauteskundeetan (%20 inguru lehen itzulian), baina huts egin zuen 2019ko Europako hauteskundeetan, %6,3 baino pixka bat gehiago baino ez baitzuen mobilizatu. Historikoki indartsua izan den alderdi komunista tradizionala bere punturik baxuenean dago: azken hauteskundeetan botoen %2,5 baino ez baitzuen lortu eta, beraz, 1979tik lehen aldiz, Europako Parlamentutik kanpo geratu da. Alemanian Die Linkek (ezkerra) ere ez zuen emaitza onik izan azken hauteskundeetan, botoen beste laurden bat galduta eta botoen %5,5arekin amaituta.

Ekialdeko European ezkerreko alderdiak urriak dira. Txekiar Errepublika izan zen, bere alderdi komunista tradizionalaren bidez, 2019ko hauteskundeetan Europako Parlamentuan ordezkaturata egotea lortu zuen bakarra. Eslovenian ezkerreko alderdi berri batek, Levicak (Ezkerra), emaitza onak izan zituen nazioko legebiltzarreko azken hauteskundeetan, baina porrot egin zuen EBko hauteskundeetan. Belgikan, antzinako alderdi maoista eraldatetik sortutako Parti du Travail de Belgique (Belgikako Lanaren Alderdia) alderdiak aurrerapen handiak lortu zituen (botoen %14,5 Belgikako zati frankofonoan) klase orientazio argiari eta programa erradikalari esker. Grezian, Syrizak Europako ezkerreko indar gehienek baino emaitza hobeak izaten jarraitu zuen (EBko azken hauteskundeetan botoen %23 gaindituz), baina, oro har, jasotzen duen babes murriztu egin da (2015eko hauteskunde nazionaletan botoen %36 lortu zuen). Eta hori, Grezian, eta , baita European ere, ezkerrean arazo handiak sortu zituzten Troikako austeritate politika basatien egile leialak izan arren.

Europako Parlamentuan, ezkerreko alderdi gehienak Europako Ezker Bateratuaren/Iparraldeko Ezker Berdearen Talde Konfederalaren barruan daude, eta gaur egun berrogeita bat ordezkari osatzen dute, 2019ko maiatzeko Europako hauteskundeen ondoren (hamaika ordezkari-)

ri gutxiago). Koalizioa hainbat joeratan banatutako alderdien multzo mistoa da, eta banaketa horiek ez dira beti erraz ulertzen. Batzuek ukatu egiten dute alderdi tradizionalak direnik, eta beste batzuek, berriz, baita *ezkerrekoak* direnik ere. Aliantzak eratzen eta aldatzen dira, eta politikak, batzuetan, modu oportunistan egokitzen dira, elkartuta jarraitzeko.

Aldi berean, Europa mailako ezkerrean nagusitasuna lortzeko borroka dago, aliantza berrien hainbat ekimenen bidez. Ekimen horietan, alderdi batzuk horietako batean baino gehiagotan parte hartzen dute, eta, itxuraz, hori ez da arazoa. Europar Batasunarekiko harremana, neurri handiagoan edo txikiagoan, funtsezko elementua da gaur egun ezkerreko alderdien hiru talderen artean izaten ari den barne-lehian.

Alderdi batzuk (gaur egun hogeita sei) 2004an sortu zen Europako Ezkerreko (EL) kide dira eta Europar Batasuneko sistemari alderdi estatusa dute. ELk, ondo antolatutako alderdi batena baino sare edo erakunde koordinatzaile baten antz handiagoa du. Ezkerreko hainbat alderdi ez dira ELko kide. ELek gain, beste bi erakunde ere lanean ari dira Europar ezkerreko alderdien artean sareak edo aliantzak sortzeko: DiEM25 (Europako Demokraziaren aldeko Mugimendua 2025) eta Mélenchon-en La France Insoumise.

Mélenchon, neurri batean, aliantza alternatibo bat eraikitzen hasi zen, ez zegoelako konforme EL erakundearekin, Syrizen Greziako kapitulazioaren aurka zegoelako eta profil politiko garbiagoa nahi zuelako. Duela urte batzuk Mélenchonek Parti de Gauche Eltik atera zuen, horren inguruan Frantziako alderdi komunistarekin sortutako gatazka argudiatuz. Bere alderdi berria, La France Insoumise, ez da ELn sartu. 2019ko Europako hauteskundeetan aurretik, era aktiboan egin zuen lan Europar Batasunaren nagusitasunean zentratutako talde alternatibo bat eraikitzeko. Arrakasta izan zuen Bloco de Esquerda (Ezkerreko blokea, Portugal) eta Podemos (Espainia) ikuspegi horren alde agertzea lortzeko orduan, eta 2018ko apirilean alderdi horiek adierazpen bateratu bat atera zuten, "Iraultzaren aldeko Europako herritarren Lisboako Adierazpena: Orain jendea!"⁽⁴⁾ izenekoak. Geroago, Danimarka, Suedia eta Finlandiako ezkerreko alderdiek bat egin zuten Lisboako adierazpenarekin.

Yanis Varoufakisek, hirugarren aliantzaren sortzaileak, DiEM25ekin, 2019ko Europako hauteskundeetara bideratutako aliantzak eraiki zituen, *Europako udaberria*⁽⁵⁾ izenarekin. Programaren zati nagusia, Franklin

D. Rooseveltek 1930eko hamarkadan Estatu Batuetarako egindako *A New Deal for Europe* erreforma-programan inspiratutako proiektua zen.⁽⁶⁾ DiEM25 hori ez da alderdi gisa definitzen, eta ez du bere burua eskuin-ezkerreko espektruaren barruan jartzen. Bloco de Esquerda eta Podemos baino erakunde esparru zabalagoarekin, erakunde txikiekin eta nahiko berriekin, aliantzak sortzen ahalegindu zen. Horrek, ezkerreko alderdi tradizional eta handien artean Varoufakisekiko eszeptizismo apur bat ere sortzen du. Arrakastarik izan ez zuen arren, Varoufakis hautagai gisa aurkeztu zen Europako hauteskundeetara Alemanian, Die Linkeren barruan haserrea sustatuz. 2019ko hauteskundeetan DiEM25ek ez zuen Europako Parlamentuan eserlekurik lortu. Hala ere, handik gutxira egin ziren Greziako hauteskunde nazionaletan, Greziako adarrak bederatzia eserleku lortu zituen parlamentuan, Varoufakisena barne.

Komeni da ikustea, halaber, joera bonapartistak ari direla sortzen Europako politikan –hau da, norberarentzat posizio politikoak lortzeko antolakundeak edo mugimenduak sortzeko sartzen diren gizabanakoak–. Horrek, batez ere, Europako espektro politikoan gaur egun dagoen krisi politiko sakona erakusten du. Ezkerrean, Varoufakisen DiEM25 eta Melençonon La France Insoumise alderdiek ezaugarri bonapartista argiak dituzte: organizazio gutxi definituak eta egitura demokratikorik gabe, komunikazio elektronikoan eta lider sendoetan oinarrituak eta, batez ere, hedabideetako estrategietan zentratutako erakundeak dira. Podemos, ziurrenez, bere zuzendaritza aitortzeko prest dagoena baino gehiago kontrolatzen du Madrilgo Unibertsitateko akademikoen kamerak. Kamerak sortu zuen alderdia 2014an. Alexis Tsiprasen gidaritzapean izan zen des-demokratizazioarekin, Syrizak ere norabide bereko joerak erakutsi ditu, alderdi egitura tradizionalagoa duen arren.

3. EB-REN POLITIKAREN KRITIKA ZORROTZA

Sozialdemokrazia eta Europako mugimendu sindikaletako sekzio nagusiak Europar Batasunaren aldekoak izan dira beti, batzuetan EBren politikaren alderdi zehatzak kritikatu dituzten arren. Herrialde askotan,

batez ere Eskandinavian, baina baita Frantzian ere (Alderdi Komunistarekin), ezkerreko alderdiak EBko kide izatearen aurka agertu ziren erabaki bat hartzeko uea iritsi zenean. Hala ere, urteak igaro ahala, Europar Batasunetik erretiratzeko eskariak ahuldu egin ziren.

Zerk eragiten du Europar Batasunarekiko harremana hain problematikoa eta ia aurreikustezina izatea Europako ezkerreko alderdi askorentzat? Historikoki, bi faktorek paper nagusia bete dute. Lehenengoa, Europar Batasunaren (edo Europako Ekonomia Erkidegoaren, hasieran izan zen bezala) sorrerarekin batera etorri zen kontakizun ideologikoa. Kontakizun horrek bi helburu garrantzitsu zituen: EBk Europan bake iraunkorra lortzeko oinarriak ezarri behar zituela eta herritarren garapen sozialerako tresna izango zela. Bi mundu-gerra suntsitzaileen ondoren, biak ere Europako estatu-nazioen artean piztutakoak, bakerako premisa politikoak oso erakargarriak ziren. Ia esparru politiko osoak, eskuinetik ezkertera, asmo horiek babestu zituen orduan, eta oraindik ere hala egiten dute. Gainera, gerraosteko ongizate-estatuaren garapenari esker, pertsona askok uste zuen aurrerapen sozialak bidean zetozela.

Bigarren gertaera historiko garrantzitsua François Mitterranden agintaldia izan zen, 1981etik 1995era. Mitterrandek programa sozialdemokrata ezkertiar eta erradikalari ekin zion: nazionalizazio orokortua, birbanaketa ekonomikoa eta arlo askotako beste esku-hartze politiko batzuk barne. Langile mugimenduko kide askok, Europa sozialistaren eraikuntzaren hasiera gisa ikusi zuten hori. Hala ere, bi urte eskasetan, Mitterranden eraberritze-proiektua bertan behera geratu zen. Oraindik ere porrot politiko horren arrazoiak eztabaidatzen ari dira, eta baita beste politika bati ekiteko aukera ere. Kasu honetan ere Europako Erkidegoaren (orain Europar Batasuna) eskaerak mahai gainean zeuden, Frantziak Europako moneta-sistemarekin bat egitea eskatu baitzuen. Orduan, orain bezala, horrek mugak ezarri zituen, zein politika aplikatu zitezkeen erabakitzeko orduan.

Mitterrand, orduan, Europako Erkidegoaren eskakizunetara makurtu zen, bere presidentetza, erreforma sozialistaren programa oso bat praktikan jartzeko azken saiakera sozialdemokrata bihurtuz (1980ko hamarkadan Suedian *Soldatapeko langileen funts kolektiboen* ondorengo porrotaren balizko salbuespenarekin). Bere esperientzian oinarrituta, Mitterrandek, Jacques Delors finantza ministroarekin batera, politika sozialista edo

sozialdemokrata (keynesiar) baten etorkizunak estatu-nazioei baino gehiago, Europako Ekonomia Erkidegoaren garapenari lotuta egon behar zuela ondorioztatu zuen. Beraz, Europako integrazio ekonomiko handiagoaren alde lan egitea bihurtu zen Frantziako sozialisten politika, eta, azkenik, Europako sozialdemokrazia guztiena. Baina Martin Höpner zientzialari sozialak Koloniako Max Planck Institutuan adierazi zuen bezala: “Mito bat da esatea “Europa gehiagok” sozialki aurrerakoia den Europara hurbilduko gaituela”⁽⁷⁾.

Bakea eta aurrerapen soziala bultzatzen dituen Europar Batasuna izan da gaur arteko kontakizun nagusia. Hala ere, Frantziako sozialistak eta beste batzuk, pixkanaka proiektua zalantzan jartzen hasi ziren. Ikusten ari ziren ekonomiak integratu –eta desarautu– egiten zirela, baina aurrerapen gutxi lortzen zirela beraiek *oinarri soziala* deitzen zuten horretan. Adierazitako helburua merkatuko indarrak kontrolatzea zen, gobernantza politikoa eta Europa mailako erregulazioa areagotuz; tokian tokiko garapenen ezaugarria, berriz, merkatuko indarrak areagotzea zen, baina ia ez zen dimentsio sozialik ikusten.

Oraindik ez dakigu politikari sozialistek eta sozialdemokratek nola sinetsi ahal izan zuten hain modu errazean, Europako Ekonomia Erkidegoa bezalako nazioz gaindiko erakunde bat –sorrerako itunaren (1958ko Erromako Ituna) elementu nagusi gisa lau askatasunetan oinarrituta zegoena (kapitalaren, ondasunen, zerbitzuen eta pertsonen mugimendu libre), eta egitura demokratikorik gabea– *Europa sozialerako* tresna izan zitekeela. Are misteriotsuagoa da sinesmen horri eusteko modua, Akta Bakarra (1986an EBko merkatu bakarra ezarri zuena), Maastrichteko Ituna (1992koa, integrazio handiagoa eta Europar Batasunaren sorrera ekarri zuena), Lisboako Ituna (2007koa, Frantzia eta Herbehereetan 2005ean egindako erreferendumetan baztertutako konstituzioaren bertsio aldatua) eta beste testu legegile, akordio eta tratatu neoliberal batzuk onartu ondoren.

Bi garapen garrantzitsu egin dira azken urteotan ezkerreko alderdien artean Europar Batasunari egindako kritikak areagotu egin direla ulertzeko. Bata, EBko erakundearen eta politiken garapena da, 2008ko finantza-krisiaren eta 2009ko euroaren krisiaren ondorioz. Bestea, berriz, Grezian Syrizen gobernuaren aurka 2015eko hauteskundearen ostean egindako borrokan Europar Batasunak bete zuen papera da.

Finantza merkatuak salbatzeko, eta agian kapitalismoa bera ere, finantzen eta euroaren krisi sakonetik, gobernuek eta EBk dirua eman zieten banku pribatuei. Horrek aurrekontu-defizit handiak eragin zituen, eta administrazio publikoen zorra era masiboan handitu zen estatu kide askotan. Egonkortasunerako eta Hazkunderako Ituna mahai gainean jarrita, Europar Batasunak oreka ekonomikoa berrezartzeko eskatu zuen, eta horrek aurrekontu publikoetan murrizketak eragin zituen, murrizketa handiak sektore publikoko soldatetan, langabeziaren igoera ikaragarria eta langileen eskubideen, pentsioen eta lan-baldintzen aurkako eraso orokorrak (egoera horri barne-debaluazioa esaten zaio, euroguneko estatu-nazioek jada ez baitzuten beren moneta devaluatzeko aukerarik). Europar Batasuneko gizarte arloko oinarriak, beste behin ere alde batera uzteaz gain, eraso masibo baten xede izan ziren, eta ezkerren kritikak eta herritarren nahigabea areagotu egin ziren.

Troikak Syrizarren gobernuarekiko izan zuen portaerak ere ezkerren kritika gehiago eragin zituen. Europako Banku Zentralak bere monopolioa erabili zuen, Greziako bankuei dirua ukatuz, gobernuak belauniko jartzera behartzeko. Horrek argi eta garbi erakutsi zuen agintea non dagoen, zer nolako basakeriaz ezar daitekeen, eta zein babesgabe senti daitekeen estatu-kide bakar (eta txiki) bat halako aginteari, botereari, aurre egitean. Tsiprasen gobernuak, jakina, ez zuen botere horri bere tresna bideragarri bakarrarekin (Ekonomia eta Diru Batasunetik eta, beraz, eurotik ateratzea) aurre egiteko gaitasunik, eta ez zuen horretarako inolako prestataririk egin. Horrek guztiak bere kapitulazioa eragin zuen.

4. EUROPAR BATASUNA BARRUTIK ERREFORMATU AL DAITEKE?

Pertsona askoren berehalako erreakzioa Europar Batasuna aldatu egin behar zela izan zen eta hori lortzeko Europako ezker bateratu baten borroka baliatu behar zela. Aldi berean, ordea, kontraesan berriak sortzen hasi ziren. Ezkerreko batzuk gai erabakigarria planteatzen hasi ziren. Europar Batasuna barrutik erreforma al daiteke? Zer gertatzen da, ezkerre gure herrialdean hauteskundeak irabazita ere, gure politika praktikan jartzea eragozten badigute? Syrizarren gobernuak Europar Batasunaren/

Troikaren aurrean egindako kapitulazioak bultzatu zuen neurri handian eztabaida hori, eta eztabaida horretan eurotik edo are Europar Batasunetik ateratzea (*Grexit*) estrategia posible gisa planteatu zen.

Varoufakisek Europar Batasuna barrutik erreformatzearen aldeko jarrera sendoa du. Syrizarekin hautsi ondoren abian jarri zen DiEM25en fundazio-dokumentuak hiru eskaera hauek egiten zizkion Europar Batasunari: (1) gardentasun osoa eta berehalakoa EBko erakunde zentral guztien lanean; (2) zor publikoaren, banku-sektorearen, inbertsioen, immigrazioaren eta banaketa-politikaren erantzukizuna estatuetako parlamentuei itzultzea, urtebeteko epean, lehendik dauden erakundeen bidez, zein akordioen edo tratatuen *interpretazio sortzailearen* bitartez; eta (3) bi urteko epean konstituzio-batzar bat sortzea Europa erabateko demokrazia bihurtzeko, autonomia nazionala errespetatuko duen legebiltzar burujabe batekin. zeinak boterea partekatuko duen 2015erako aukeratu diren nazioetako eta eskualdeetako parlamentu eta tokian tokiko batzarrekin⁽⁸⁾.

Jacobinekin egindako elkarrizketa batean, Varoufakisek hau esan zuen DiEM25ek Europar Batasuna barrutik aldatzeko duen helburuari buruz: “Gure zeregina, europarrei EBko erakundeen ardura hartzea posible dela erakustea da (nahiz eta, jakina, erraza ez izan), bere politikak eta praktikak Europak izan beharko lukeenaren ideiekin bateratzea, eta Europako zer Batasun demokratiko mota nahi dugun eztabaidatzen hasia oinarri mailan”⁽⁹⁾.

Hori baino ez! Onartu behar da nahiko inozoa ematen duela, batez ere kontuan hartuta politika hori ez dagoela ez Europar Batasunaren barruko botere-harremanen eta botere-egituren azterketetan oinarrituta, ez eta hori praktikan nola, eta norekin, egin daitekeen jakiteko egindako estrategietan ere.

Ezkerreko batzuek, Europar Batasunetik irteteko edozein estrategia arbuatzen dute, ideologiaren eta printzipioen ikuspegietatik. Europar Batasuna, eta baita Ekonomia eta Diru Batasuna ere, estatu-nazioa gainditu duen eta historiaren ikuspegitik aurrerakoia dela uste duten garapena da. Eta beraz, defendatu behar dela argudiatzen dute. Ekonomia eta Diru Batasunetik ateratzea edo Europar Batasuna uztea, testuinguru horretan, hutsala izateaz gain, jokaldi arriskutsutzat jotzen dute, eta eskuin

muturreko botere nazionalistekin eta autoritarioekin lerrokatzea ekarriko lukeela diote. Internazionalismoaren izenean Europar Batasunak bere burua defendatu behar du, esaten dutenez bere politika neoliberalari aurre egin behar zaion arren. Ideia horiek babesten dituzten gehienak sozialdemokratak dira, baina ez da ikusi neoliberalismoaren aurka asko egin dutenik. Ideia horietako asko ezkerreko sektore handietan ere aurki daitezke.

Costas Lapavitsas, Londresko Unibertsitateko ekonomia irakaslea, Syriazaren zerrendan hautatua izan zen 2015eko urtarrilean, baina alderdiarekin eta Tsiprasekin hautsi zuen hauek Troikaren aurrean amore eman ondoren. Era aktiboan hartu du parte eztabaidan. Hau esaten die Europar Batasuna laguntza behar duen nazioartekotze-proiektu gisa ikusten dutenei:

Hortxe dago gaur egun Europako ezkerren arazoa. EB proiektu aurrerakoi gisa defendatzeak erradikalak izatea eragozten die, eta, horrela, Europako kapitalismoaren egitura neoliberaleretan integratzen dira. Ezkerrak boto-emaile historikoengandik gero eta urrunago ikusi du bere burua, baita Europako langile eta pobreen-gandik ere, beste ahots politiko batzuk beste leku batzuetan bilatu baitituzte... Ezinbestean, ezkerrak sortutako hutsunea berehala bete dute Europako historiako indar politiko txarrenetako batzuek, eskuin muturrak barne⁽¹⁰⁾.

Lapavitsasek, eta baita beste ezkertiar batzuk ere, Europar Batasuna oztopo gisa ikusten dute ezkerreko programa aurrerakoi bat indarrean jartzeko, batez ere, Grezian gertatutakoa ikusi ondoren. Europar Batasunak eta Ekonomia eta Diru Batasunak oztopo instituzional handiak eta egiturazkoak dituztela baieztatu dute. Aurreko artikuluan batean, hesi horietako sei deskribatu nituen:

- Azken urteetan murriztu beharrean handitu egin den defizit demokratikoa.
- Neoliberalismo konstituzionalizatua; horren ondorioz, sozialismoa eta keynesianismoa legez kanpokoak dira Europar Batasunean.
- Atzera bueltarik gabeko legeria, tratatu bat aldatzeko ehuneko ehu-nean ados egotea eskatzen duena.

- Euroa indarrezko alkandora ekonomiko gisa, eta, horrekin batera, kontrol demokratikotik kanpo dagoen banku zentral bat.
- Garapen desberdina estatu kideen artean, eta horrek erresistentzia koordinatua zaildu egiten du.
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren zeregin zabala, Laval Laukotea izenekoa adibide argigarri gisa hartuta (2007an eta 2008an, auzitegiak eskubide sindikalak ahuldu zituzten lau epai garrantzitsu eman zituen)⁽¹¹⁾.
- Eta orain hau gehitu dezakegu: itunak ez betetzeagatik finantza-zehapenen sistema osoa, COVID-19aren krisian Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunean jasotako zehapen posibleak aldi baterako eten diren arren.

5. B PLANA: TRATATUEKIN HAUSTEA

Hala ere, Europar Batasuna erreformatzeko borroka, barrutik iraultzeko borroka ez esatearren, ezkerrearen gehiengoak, praktikan behintzat, *beste Europa bat* sortzeko duen jarrera izaten jarraitzen du. Pixkanaka osatzen joan den beste jarrera bat Melenchonek hasitako *B Plana* da. Estrategia hori, ziurrenik, abiarazi zenetik aldatu egin da, bai formari bai edukiari dagokienez. Proposamena Syriza Grezian izandako porrotaren esperientzian oinarrituta garatu zen, horrelakorik berriro gerta ez zedin.

Politikak bi elementu nagusi ditu. Lehenengoa, estatu kide batean ezkerre garaipena lortuz gero, EBko erakundeei aurre egiteko ekintza-plan argi bat garatzea. Bigarrena, alderdien, mugimenduen eta ekonomialarien arteko Europa mailako aliantza bat sortzea, politika hori indarrean jartzeko estrategia komun bat gauzatu ahal izateko; aldebakarreko negoziazioak eta euroa, itunak eta egungo beste akordio batzuk erretiratzeko aukera uztartuko litzuzkeen estrategia izango litzateke.

B Planari buruzko hitzaldi sorta bateko lehena 2016ko urtarrilean izan zen, Mélenchonek antolatuta. Partaideen artean, Varoufakis, Stefano Fas-

sina Italiako ekonomia eta finantza ministro ohia, eta Oskar Lafontaine Alemaniako ekonomia eta finantza ministro ohia (aurrerago Die Linkeko buruzagia izandakoa) zeuden. Varoufakis lehen bileraren ondoren erretiratu zen ekimenetik, bere DiEM25 aurkeztu zuenean –Europar Batasuna barrutik erreformatzeko helburuarekin, hain zuzen ere–. B Planak erakunde-sare zehaztugabe eta malgu gisa funtzionatu du, eta partaidetza aldakorra izan du konferentziatik konferentziara. Hasieran, bilerak ezkerreko alderdi politikoetako, sindikatueta, mugimendu sozialetako eta beste erakunde batzuetako pertsonen nahasketa ziren. Hala ere, pixkanaka ezkerreko alderdiek osatutako sare mugatuagoa bihurtu dira.

Oraindik ere anbiguotasun pixka bat dago ekimena ulertzeko moduari buruz eta, batez ere, egoera politikoak posible egingo balu, indarrean jartzeko moduari buruz. Hurrengo puntuek, zehatzak ez diren arren, B Plana zertan datzan erakusten dute:

- Estatu kide batean edo gehiagotan ezkerrek agintea lortzen duenean eta EBko arau eta erregulazioekin gatazkatsuak diren politikak gauzatzan hasten denean egin daitekeena eta egin beharko litzatekeena hartzen du ardatz.
- B Plana, A Plana baztertzen bada indarrean jartzeko dago pentsatuta. Azken hori, EBko itunen eta legeen esparruan zer politika aplikatu daitezkeen adosteko EBko erakundeekin ohiko negoziazioen amaiera da.
- B Plana aktibatzeak esan nahiko luke ezkerreko gobernuak ez dituela onartzen Europar Batasunak ezarritako murrizketak, baina itun garrantzitsuak haustearan alde egiten duela, modu irekian eta kontzientean, nazio mailan bere erreforma politiko eta ekonomiko propioak ezartzeko, Europa mailan prozesu horri babesa bilatzeko mobilizatzen den bitartean.

Batzuetan, pentsa daiteke B Plana, funtsean, ohartarazteko tiro bat edo A Planaren negoziatioetan mahai gainean jarriko den maniobra taktiko bat izatera dagoela bideratuta, eta baliteke Mélenchonek uste izatea Frantzia nahikoa handia eta garrantzitsua dela EBko arauen aurkako politikak mehatxuen bidez soilik gauzatzeko. Kasu horretan, oso litekeena da ezkerreko gobernu batek aurre egin diezaikeen indar ekonomiko eta politiko handiak gutxiestea, baita Frantzian ere. Eraso neoliberalerako ha-

markadetan zehar, indar kapitalistak posizionatu egin dira eta botere instituzional izugarria lortzeaz gain, estatu neoliberal ez osatutako formazio supranazional gero eta autoritarioagoa sortu dute Europar Batasunean. Indar horiek ez daude prest beren botereari borrokatu gabe uko egiteko.

Botere-harreman horien ebaluazio analitikorik eta estrategikorik ez egotea B Planaren ahulgunea da. Izan ere, estrategia hori inplementatu balitz, Europar Batasunarekin erabat konfrontatzeko aukera jaso beharko luke. Pauso hori ematea erabakitzen duen gobernu batek, Ekonomia eta Diru Batasuneko (euroa) eta Europar Batasuneko kide izatearen kontua gai-zerrendan jartzeko prest egon behar du. Berezik, Europar Batasunak, finantzen eta euroaren krisiaren ondorioz, estatu kideen gaineko betebeharrak gogortzen dituzten itun eta araudi jakin batzuk jarri dituelako abian, edozein ez-betetzere aurreko zigor zabalak barne. Beraz, B planak askoz zehatzagoa eta erasokorragoa izan beharko du, eta jendearen artean zabaldagoa egon beharko du, etorkizuneko edozein mobilizaziorako aurretiazko baldintza gisa.

Halaber, alderdiek B Planari ematen dioten babesaren intentsitatea jakitea ere bada kontua. Gobernuaren boteretik urrun dauden alderdi batzuentzat, B Plana eredu teoriko gisa baino ez da agertzen. Beste batzuentzat, EBren auziari buruzko desadostasunak daude jokoan, eta hori ondo irudikatuta dago B Planari buruzko 2019ko apirilko Stokholmeko konferentzian. Bertan, Poloniako ezkerreko Razem alderdi txikiko, Erresuma Batuko alderdi laboristako eta Irlandako Sinn Feineko ordezkariak EBren defendatzaile sutsu gisa agertu ziren. Hitzaldian parte hartu zutenek gaurko Europaren erronka politikoetako batzuk eztabaiatu zituzten, baina, paradoxa dirudien arren, B Planaren estrategia bera ez zen gai garrantzitsua izan, Europar Batasuneko neoliberalismoaren kritika aho batekoa izan bazen ere⁽¹²⁾.

6. “ARRAZISTA ETA NAZIONALISTENTZAKO KANOI-BAZKA”

Ezkerrak Europar Batasunari egindako kritikak areagotu baditu ere, eta alderdi batzuk, egia esan, ados egon arren egoera batzuetan EBko

itunak haustea beharrezkoa izan daitekeela esatean, beste joera politiko batzuek kontrako noranzkoa daramate. Hasiera batean Europar Batasunarekin oso kritikoak ziren ezkerreko hainbat politikari eta aktibistak arazoak izan dituzte beraien jarrera kritikoarekin, eskuin muturrak berak gero eta etsaitasun handiagoa erakusten baitu Europar Batasunaren aurrean. Hori bereziki nabaria izan zen Erresuma Batuko Brexit-aren kanpaina. Kanpaina gauzatzen ari zen bitartean, 2016ko ekainaren 23an erreferenduma egin aurretik, normalean Erresuma Batua Europar Batasunetik irtetearen alde lehiatu eta bozkatuko zuten joera ezkertiarreko hainbat pertsonarekin bildu nintzen, baina ez zuten horrela egin, *arrazista eta nazionalistentzako kanoi-bazka* ez izateko. Argudioa zen eskuin muturreko alderdi eta mugimenduak zirela Brexitaren kanpainaren indar bultzatzaileak, eta, beraz, joera horretan arrazakeria, xenofobia eta eskuineko nazionalismoa zirela nagusi.

Europar Batasunaren aurreko etsaitasunean eskuin muturraren *alde jartzeko* beldur hori Brexitaren kanpaina baino lehen ere piztu zen Europako ezkerrearen parte batzuetan. Urte askotan zehar, beldur hori sarritan aurkitu nuen Europako ezkerreko hainbat sare eta erakundetako bilera eta hitzaldietan parte hartu nuenean. Arrazistekin eta nazionalistekin parekatzeko kezka gain, batzuek uste dute Europar Batasunetik irteteak edo zatikatzeak eskuineko indarrak bakarrik indartuko lituzkeela; izan ere, indar horiek betidanik nahasketa arriskutsua izan dira Europan. Ondorio logikoa, borroka sozialaren bidez Europar Batasuna barrutik aldatu behar dela da.

Suediako Ezkerreko Alderdia argudio horiek Europako ezkerrean lekua irabazten ari direla erakusten duen adibide berria da. Alde batetik, alderdia B Planaren sarearen barruan dago, eta, bestetik, Suediak Europar Batasuna uztearen alde aurretik zuen jarrera bertan behera uztea erabaki zuen 2019ko otsaileko konferentzia batean. Elkarrizketa batean, Jonas Sjöstedt alderdiko buruak hiru arrazoi eman zituen aldaketa hori egiteko⁽¹³⁾. Lehenengo, errealtate politikoa asko aldatu dela, bereziki klimaren krisiaren ondorioz, baina baita eskuin muturraren gorakadarengatik ere. Bigarrenik, Ezkerreko Alderdia ez delako “arrazistekin eta nazionalistekin lerrokatuko”, Brexitaren kanpainari erreferentzia eginez. Hirugarrenez, Europako ezkerria kritikoagoa bihurtu delako EBrekin, eta Ezkerreko Alderdiak aliatu gehiago lortu dituelako Europar Batasunaren aurrean. Beraz, Sjöstedten arabera, Europako ezkerrek gaurko Europar Batasunari aurre egin behar dio eta Europa hobe baten alde lan egin.

Ez dago argi, hedabideen estalduran edo Sjöstedtekin izandako elkarrizketan oinarrituta, Europar Batasunetik irteteko politikatik atzera egitea erabaki taktiko eta programatua baino ez zen izan, egungo egoeran oinarritua, ala printzipioetan oinarritutako aldaketa estrategiko iraunkorra. Bi jarrera horien arteko aldea oso handia da, Europar Batasunaren erreforma-gaitasunaren balorazio guztiz desberdinetan oinarrituta baitaude. Arrazoi taktiko asko daude Suediako egungo egoeran “atera gaitezen Europar Batasunetik!” bezalako esloganari lehentasunik ez emateko. Baina, ezkerrek gobernatzeko boterea lortzen duen Greziakoa bezalako testuinguruan, auzia erabakigarria da. Eurotik edo Europar Batasunetik irteteko eskaerak dagoeneko ez dira teorikoak soilik, ezkerreko gobernu batek bere politika ezartzeko edo kapitulatu behar izateko aukerak determinatzen dituzte.

“Zurekin bat ez datorren norbaitek partekatzen duelako demanda politiko bat ezeztatzea estrategia ona den” galdetu zioten zuzenean Sjöstedti. Bere erantzunak galdera berriak sorrazten ditu: “Iparraldeko herrialdeetan nagusi den EBren aurkako kritika aurrerakoiak nazionalismoaren eta arrazakeriaren aurkako ildo argia marraztu behar duela uste dut. Ez gaude Ukip alderdiaren alde berean [Brexitaren aldeko kanpaina egiteko sortutako eskuineko alderdi populista]. Ezta EB kritikatzten duten arrazisten alde berean ere. Amildegi batek bereizten gaitu haiengandik. Eta hori oso argi geratu behar da”⁽¹⁴⁾.

Logika politiko hori ez da ulerterraza. Ezkerreko alderdiek Europar Batasunari egiten dioten kritika eta arrazistek eta nazionalistek egiten diotena bereizten dituen *amildegi* bat badago, zein da arazoa? Gainera, zergatik aldatu behar ditu Ezkerreko Alderdiak (suediarra) EBko politikaren aurrean dituen jarrera batzuk *arrazisten eta nazionalisten pare ez egoteko*? Ez al litzateke garrantzitsua izango Ezkerreko Alderdiak Europar Batasunari eta bere politikari buruz duen kritika justifikatua sustatzea, nahiz eta horrek Europar Batasunarekiko haustura ekarriko lukeen, bestelako politika bat aplikatu ahal izateko beharrezkoa balitz?

Brexitaren kanpainan diskurtso nazionalista eta xenofoboa nagusi izateak, Sjöstedtek dioen bezala, oinarri sendo bat ematen du alderdi laborista kritikatzeko, eta baita Momentum (hauteskundeetan alderdi laborista babestu zuena) eta mugimendu sindikala kritikatzeko ere, Europar Batasunaren eta eskuin muturraren aurreko kritika propioa egiten

jakin ez zutelako. Jendeak Europar Batasunarekin eta bere politikekin duen nahigabe logikoa eurenganatu zezaketen, politizatzea eta gero eta autoritarioagoa eta neoliberalagoa den Europar Batasunaren aurkako borroka bihurtu.

Hala ere, Alderdi Laboristako, Momentumeko eta mugimendu sindikal britainiarreko sektore handiak EBren proiektuaren defendatzaile sutsuak dira. Horrela, azken urteetan Europar Batasun neoliberalaren aurka hazten joan den herritarren nahigabe masiboa irudikatzeko eta ahotsa izateko aukera galdu dute. Beste modu batera esanda, eskuin muturrari eman diote Europar Batasunaren aurkako kritika oldarkorrenaren monopolioa, eta baita borroka bere esparru politikora eta ideologikora eramateko aukera ere. Beraz, ez da harritzekoa Brexitaren kanpainaren ezaugarriak nazionalismoa eta xenofobia izatea.

7. MAILA BAXUKO KLASEEN ARTEKO BORROKA

Gizartearen garapen politikoak ezin dira klase-borrokaren garapenetik isolatuta ikusi. Ez da berria ezkerre eta mugimendu sindikala Europan krisian egotea, herrialde batetik bestera baldintzak asko aldatzen diren arren. Krisi honetan Europar Batasunaren lekua eta izaera maila politiko eta ekonomikoan bereziki markatu zuena izan zen hegemonia keynesiarretik hegemonia neoliberalerako bilakaera. Moneta bakarra, euroa, sartzea eta hori egiteko modua funtsezko urratsa izan zen Europar Batasunaren eraldaketa neoliberallean. Horrek ere abantaila eman zien indar kapitalistei langileen mugimenduaren aurkako borrokan, eta horrek, argi eta garbi, eragina izan du Europako ezkerreko alderdietan.

2007-2009ko finantzen eta euroaren krisiaren ondoren, Europar Batasuneko austeritate-politika erreakzionarioa indartu egin zen, eta, gainera, forma are autoritarioagoak hartu zituen, legedi berri baten bitartez horiek instituzionalizatuz (“sei neurriko paketea”, “bi neurriko paketea”, “Europako sei hilekoa”, “finantza-ituna”, etab.) eta Europako Justizia Auzitegiari protagonismo handiagoa emanez, Laval laukotearen bidez. Beraz, ongizate egoerak deuseztatzea eta mugimendu sindikala desagitea

EBko erakunde eta politika *modernoen* zati integral bihurtu da, Europar Batasuna aurrerapenerako bitarteko gisa erakusten duen kontakizunetik urrun.

Horrek guztiak izugarri ahuldu du mugimendu sindikala, 1980 eta 2015 artean mendebaldeko Europan zituen afiliatuen erdiak galdu baitzituen. Beherakada handiagoa izan da sektore pribatuan. Desindustrializazioak edo industriako enpresak Asian eta beste herrialde merkeago batzuetan jartzeak (kapitala globalizatzeko estrategia) mugimendu sindikala ahultzen lagundu du, betidanik indartsuagoa, militanteagoa eta hobeto antolatua zen eremuetan. Gainera, langabeziaren gorakadak sindikatuen negoziatorako indarra ahuldu du, eta lan arloko legeetan izandako aldaketan ondorioz eskubide sindikalak murriztu egin dira, negoziatorako eta grebarako eskubideen murrizketak barne.

Europar Batasuna Europa ekialderantz hedatu izanak eta lan-merkatu komun bat sortzeak ere paper garrantzitsuak izan dituzte. Europa ekialdeko eta mendebaldeko estatu kideen artean dagoen soldata-arrakala erraldoia da horren arrazoia, eta baita langabezia-indize masiboa ere; izan ere, %30era igo da krisiak gogorren astindu dituen herrialdeetan (Grezia, Espainia), eta gazteen langabeziak kopuru hori bikoiztu ere egiten du. Horrek tarte handia eman die ugazabei, nagusiei, sindikatu gabeko eskulana ustiatzeko, langileak elkarren aurka jarritz eta dumping soziala eta lan-merkatuan legez kanpoko jarrerak sustatuz.

Egoera horretan, defendatzeko jarrera duen eta krisi ideologiko eta politiko sakonean murgilduta dagoen mugimendu sindikal bat dugu. Berezi ki, Europa mailan instituzionalizatutako sindikatuetak sektore handiak gero eta gehiago urrundu dira afiliatuetatik, horiek defendatzen aritu beharko luketen arren. Oraindik ere, gerraosteko hazkundearen eta oparotasunaren oinarri politikoa sortu zuen langileen eta kapitalaren arteko konpromiso historikoari eusten diote, nahiz eta ugazabek konpromiso hori apurtu botere-oreka haien alde jarri zenean. Europar Batasunaren austeritate-politika basatia, beraz, *politika desegoki* gisa interpretatzen da, ez klase interes kontrajarrien adierazpen gisa. Orduan, gobernua eta ugazabak, nagusiak, konbentzitu behar dira, *elkarrizketa sozialaren* bidez, egungo politika desegokia dela eta zuzendu egin beharko litzatekeela ikus dezaten, klase indarren balantza alde batera eramateko mobilizatu eta borrokatu beharrean.

Ezker politikoaren krisia klaseen arteko borrokaren garapen horien tes-
tuinguruan ikusi behar da –paktismo sozialaren ideologian sakon errotu-
tako mugimendu sindikalarekin eta, oro har, borroka-maila baxuarekin–.
Beraz, ulergarria denez, kanpoko presiorik gabe ezkerreko alderdiak
Europar Batasunak Bruselan duen aparatu politiko-administratiboan are
gehiago sartzeko arriskua handitzen da.

8. EUROPAKO EZKERRAREN DIAGNOSTIKOA

Ikusi dugunez, Europako ezkerria hainbat erakundek osatutako taldea
da. Joan den mendearen parte nagusian bi joera izan dira nagusi lan-
gileen mugimenduan: komunismoa eta sozialdemokrazia. Ekialdeko
blokea eraitsita eta Mendebaldeko Europan klase konpromisoa hautsita,
badirudi bi proiektu politikoak amaitu egin direla. Mendebaldeko Euro-
pako alderdi komunista tradizionalak, Moskura bideratuenetik euro-
komunisten aldaera berriztatuetara (Italian eta Espainian), pixkanaka
deskonposatuz joan dira. Azken urteotan, alderdi sozialdemokrata es-
perimentatuen kolapsoa ere ikusi dugu, bata bestearen atzetik. Oraindik
irauten dutenek, txikiak izan arren, gutxi-asko ideologia tradizionala utzi
eta politika neoliberal leuna hartu dute.

Europako egungo alderdi ezkertiar batzuk berriagoak dira, hainbat talde
eta alderdi txikiren bat-egiteak eta berrelkartzeak barne, baina ez dute
nahitaz lotura sendorik iraganeko tradizio historikoekin. Horietako
gehienak, politikoki, erakunde moderatu samarrak dira eta gutxi errotuta
daude langile klasean eta mugimendu sindikalean. Alderdi horietako oso
gutxi dute ondo garatutako estrategia sozialista, edo harreman ekono-
mikoen eta botere-harremanen analisia. Aldiz, joera sozialdemokrata eta
sozial-liberal asko dituzte (ikuspegi horietarako espazioa zabalduta egin da
azken urteotan, ideologia horiek dituzten alderdi tradizionalak gero eta
neoliberalagoak bihurtu diren heinean).

Salbuespen batzuekin, alderdi horiek oso bideratuta daude parlamenta-
rismora, komunikabideen arreta bilatzen duten gai jakin batzuetan zen-
tratuta, eta langileak behetik mobilizatzeko gaitasun ahula dute. Beraz,

une Gramsciar baten erdian gaudela esan dezakegu, zaharra hiltzen ari da eta berria ezin da jaio.

Wolfgang Streeck soziologia irakasle alemaniarra, Max Planck Institutuko zuzendaria eta sozialdemokrata izandakoa da, eta ezkerrek azken urteotan Europar Batasuneko hauteskundeetan izan duen ahultasuna eta gainbehera deskribatzen ditu:

Azkar aldatzen diren leialtasun politikoen garaiak dira hauek. Baina, zeren zain egon behar du ezkerrek europar langileen eta klase ertaineko sektore erreformisten artean hauteskunde emaitzak hobetzeko, orain ez bada? Hori egiteko, beharrezkoa da Ezkerrek porrot egin duela azaltzea... Lehenengo arrazoia eta oinarritzakoa da, itxuraz, ez dagoela estrategia politiko errealista antikapitalistarik edo anti-neoliberalik, gutxienez, Europar Batasunari dagokionez. Ez dago eztabaidarik ere, EB politika anti-kapitalistarako ibilgailu izan daitekeen edo ez, hil ala biziko gaiaren inguruan⁽¹⁵⁾.

Europako ezkerreko alderdi askoren helburua gobernura iristea da, gehienetan alderdi sozialdemokrata neoliberal nagusi eta handiago bateko kide gisa. Bide horretan saiatu diren ezkerreko alderdi gehienentzat –Frantzia, Italia, Norvegia eta Danimarkan– esperientzia negatiboaren eta hondamendiaren arteko zerbait izan da⁽¹⁶⁾. Hala eta guztiz ere, badirudi ezkerreko alderdi gehienek –hala nola alemaniarrek eta holandarrek, eta baita Iparraldeko herrialdeetakoek ere (Aliantza Gorria eta Berdea izan ezik)– anbizio hori dutela oraindik. Podemos alderdi espainiarra 2014an sortu zen, eta bere burua ez *eskuinekoa*, ez *ezkerrekoa*, *elitearen eta kasta politikoaren* (hala deitzen zuten) aurkako gisa definitzen zuen. Ezker Batua alderdiarekin koalizioan sartu zen, euren artean Alderdi Sozialistarekin koalizio-gobernua sartzeko elkartuta.

Joera politiko suizida hori ulertzea zaila da, batez ere gobernu horietan sartzan ez diren ezkerreko alderdiak aurkitzen ditugunean. Alderdi horiek, nagusitasun sozialdemokrata duen alderdi bati babes kritikoa ematera mugatzen dira, eskuineko hainbat alderdik osatutako gobernu bati eman beharrean. Egoera horretan lortzen duten emaitza hobea da. Alderdi horiek beren politikak sustatzeko aukera hobea dutela erakutsi dute, presioa behetik mugiarazteko aukera barne, beren politikak Legebiltzarreko atzealdetik konprometitu beharrean. Åsa Linderborg suediar

historialari, prentsa-editore eta egileak arazo horri heldu dio Suediako Ezkerreko Alderdiaren garapenari buruzko artikulu batean:

Ez da erraza Ezkerreko Alderdiaren proiektua laburbiltzea. Boterearen kritika antikapitalista egiten duen alderdi bakarra da, baina 25 urtez sozialdemokraten bazkide kolaboratzaile gisa legitimitatea lortzeko lan egin du. Hainbat urtez, alderdiak, zergak murriztu eta birbanaketa politika ahuldu duen eskuineko alderdi sozialdemokrata bat babestu du. Suediako ekonomia arriskuan jartzen duten aurrekontuen aldeko botoa eman du. Emaiza klase-desberdintasun handiagoak eta aberastasunaren muturreko kontzentrazioa izan dira. Horrela, ongizatea eta demokrazia ahulduta geratzen dira⁽¹⁷⁾.

Ezkerreko alderdiek Europar Batasunarekin dituzten harreman askok koherentziarik ez dutela erakusten duten zantzuak daude. Adibidez, gero eta ezkerreko alderdi gehiagok B Planaren estrategia babesten dute, estrategia zorrotza eta beligerantea dena. Baina ez dute politika hori garatzen, aitzitik, Europako Parlamentuan eta maila nazionalean politika beligerantea egin ordez, nahi gabe agian, Europar Batasuna barrutik erreformatzeko estrategiaren parte den politika aplikatzen dute.

EBko itunak egoera zehatzetan haustearen alde egoteak ez du esan nahi "Ituna hautsi!" Kontsignak une oro ezkerreko alderdien lehen mailako eskakizuna izan behar duenik. Estrategia eta taktika kontua da. Ezkerreko indarrak indartzeko mobilizazioak, abiapuntu gisa, egoera zehatzaren azterketa jakin batean oinarritu behar du, gizarteko benetako botere-harremanena barne. Klaseen arteko borroka areagotzen ari den egoera batean, ezkerreko edozein alderdik senti dezake Syrizarak bizi izan zuena, hau da, EBko erakundeek eta itunek oztupo handiak jartzen dituztela garapen aurrerakoirako. Nahi edo ez, Eurogunetik edo Europar Batasunetik irteteko aukera edo beharra izango dugu. Aukeraketa ikaragarria izango da: erreforma sozial/sozialisten aldeko borroka alde batera utzi eta Europar Batasunean jarraitzea edo borrokarekin jarraitzeko Europar Batasunarekin haustea. Kapitulazioa nekez da bide esanguratsua benetako ezkerreko edozein alderdientzat.

Logikoa denez, EBko itunak haustek edo eurotik ateratzeak, baita Europar Batasunetik ere, behetik mobilizazio masiboa eta kanpoko

elkartasuna izan beharko dute borroka arrakastatsua izateko. Horretarako, alderdiaren antolakuntzak, kideek eta aliantzako bazkideek borroka horretarako prest egon behar dute. Tamalez, hori ez da egungo egoera.

Ezkerrak EBko politikarekin dituen arazoak areagotu baino ez dira egingo alderdiek EBren aurkako politikak onartu nahi ez badituzte, arrazistekin eta nazionalistekin parekatuko dituzten beldurrez, nahiz eta kasu orokor hori, agian, Brexitaren rreferendumer mugatuta egon. Egia kontrakoa da. Ezkerrak Europar Batasuna botere neoliberal eta autoritarioaren gune gisa ahuldu nahi badu, bertatik irtetea erabili beharreko tresna garrantzitsua eta beharrezkoa izan beharko da. Ez dira EBtik irtetearen aldeko mugimenduak izan Europako herrialde batean edo bestean eskuin muturreko alderdiak sortu eta indartu dituztenak, ezta alderdi horiek Italian, Austrian, Hungarian eta Polonian boterera iristea eragin dutenak ere. Nazionalismoen eta eskuin muturraren gorakadaren arduraduna ez da ezkerrak egiten duen Europar Batasunaren kritika erradikala, milioika langileren bizitza suntsitu duten EBko politikak baizik, jendearengan gero eta nahigabe eta ezintasun sentimendu handiagoa sustatuz.

Krisi honetatik ateratzeko modu bakarra ezkerrak Europar Batasunaren aurkako borroka eta kritika propioa garatzea da, politika internazionalistak, solidarioak eta arrazakeriaren aurkakoak sustatuz, *eskuin muturraren kritikaren amildegiaren beste aldean*. Europa solidario, internazionalista eta bateratu baten garapenak egungo Europar Batasun instituzionalizatu, autoritario eta neoliberalaren porrota dakar, eta haren ordezkia, elkartasuna eta autodeterminazioa oinarri izango dituen Europa bateratu bat ekarriko du.

Hori lortzeko, lehenik eta behin, Europako ezkerren krisi ideologiko eta politiko sakona aitortu behar da. Europar Batasunaren zeregina eta izaera aztertu eta analizatu behar dira, estrategia antikapitalista bat garatuz. Testuinguru horretan, garrantzitsua izango da B Planaren estrategia gehiago babestea eta garatzea. Horrek, behar bezala garatuz gero, Europako ezker behar duen erradikalizazioa eramango duten analisiak eta estrategiak argitzea eskatzen du.

OHARRAK:

- (1) Erakunde sare aktiboa hezkuntza politikoaren eta analisi zientifiko kritikoaren arloan, Europako Ezkerraren Alderdiarekin lotuta. Informazio gehiago, hemen: transform-network.net.
- (2) Posizio horren azalpen osoa hemen aurki daiteke: Costas Lapavitsas, *The Left Case Against the EU* (Cambridge: Polity, 2019).
- (3) Walter Baier, "Far Right in Austria: We Are Living in Dangerous Times," *Europe Solidaire Sans Frontières*, Martxoak 26, 2019./
- (4) Catarina Martins, Jean-Luc Mélenchon eta Pablo Iglesias, "For a Citizen Revolution in Europe – Lisbon Declaration", *Now the People!*, Apirilak 12, 2018.
- (5) Yanis Varoufakis ekonomia politikoko irakaslea da, Greziako parlamentuko kide ohia Syrizaren aldetik eta Alexis Tsiprasen gobernuan ekonomia ministro izan zen 2015eko uztailen Europar Batasunaren austeritate politikari buruzko erreferendumaren ondoren Troikaren aurrean kapitulatu zuen arte. Syrizarekin eta Tsiprasekin apurtu ondoren, Europako Demokraziaren aldeko 2025 Mugimendua (DiEM25) erakundea sortu zuen.
- (6) DiEM25, *European New Deal* (DiEM25, 2017).
- (7) Martin Höpner, "Social Europe Is a Myth," *Social Europe*, 2018ko azaroaren 5a.
- (8) DiEM25, *The EU Will Be Democratised. or It Will Disintegrate!* (DiEM25, 2016), 6–7.
- (9) Yanis Varoufakis, "How Should the Left Approach Europe? Elkarriketa Manuel Bompardekin batera, *Jacobin* (Frantzia), "Yanis Varoufakis (bloga), Irailak 12, 2018.
- (10) Lapavitsas, *The Left Case Against the EU*, 129–30.

- (11) Gai horri buruzko azalpen osatuagoa aurki daiteke hemen: Asbjørn Wahl, "European Labor: Political and Ideological Crisis in an Increasingly More Authoritarian European Union" Monthly Review 65, no. 8 (2014ko urtarrila): 36 – 57.
- (12) "B Plana," Vänsterpartiet, Apirilak 12, 2019.
- (13) Ingrid Grønli Åm, "Vi stiller oss ikke på samme side som rasister og nasjonalister," Morgenbladet, Martxoak 27, 2019.
- (14) Grønli Åm, "Vi stiller oss ikke på samme side som rasister og nasjonalister."
- (15) Wolfgang Streeck, "Four Reasons the European Left Lost," Jacobin, Maiatzak 30, 2019.
- (16) Fenomeno horren analisi bat aurki daiteke hemen: Asbjørn Wahl, "To Be in Office, but Not in Power: Left Parties in the Squeeze between People's Expectations and an Unfavourable Balance of Power," en The Left in Government: Latin America and Europe Compared, ed. Birgit Daiber (Brussels: Rosa Luxemburg Foundation, 2010).
- (17) Åsa Linderborg, "At Vänsterpartiet kalles «ekstremistisk» er både latterlig og provoserende," Klassekampen, urtarrilak 12, 2018.

2020, 72. liburukia, 07. zenbakia (2020ko abendua)

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....